

MAILOPE

ARAITZ | BETELU | LARRAUN | LEKUNBERRI

302 - 2022ko MAIATZA

BIZIPOZAK
IRABAZIKO DU!

ARAXES ESKOLA ASTE TXURIAN

Beteluko Araxes ikastetxeko DBHko ikasleak Otsagabira abiatu ginen martxoaren 14an. Goizeko 8:30ean maletak hartu eta autobusean igo ginen eskiatzera irteko asmoz. Bertara 10:30ean iritsi ginen eta Murkuzuria kanpinuean hartu genuen ostatu. Bungalow eta kaseta batzuetan banatu ginen eta haietan egiten genuen lo.

Lehenengo goizean, elur gutxi zegoenez, elurretan buelta bat ematera joan ginen. Gainerako egunetan, aldiz, Belaguan ibili ginen eskiatzen, eguraldi txarra zela eta Ezkarozen patinetan ibili ginen egun batean izan ezik. Egun horretan, eski mota ezberdinen hitzaldi bat ere izan genuen.

Arratsaldeetan, hainbat ekintza egiten genituen: landare tailerra, egur tailerra, herri kirolak... Horrez gain, ginkana bat ere egin genuen, antzerki bat ikusi genuen, dantzatzen ibili ginen eta Otsagiko Interpretazio Zentrokoek klimaren inguruko arazoak kontatu zizkiguten. Azken egunean, eskiatzaile apartak izategatik, diploma bat eman ziguten.

Ateraldi honetan, oso gustura ibili gara lagun eta irakasleen artean eta asko gustatu zaigu bizitako esperientzia. Gainera, eskiatzen oso ongi ikasi dugu eta denak errepikatzeko gogoz geratu gara.

Araxes eskolako DBHko ikasleak



· MAILLOPE DOAN BANATZEN DA HONAKO HERRIETAN:
Albiasu, Aldatz, Alli, Arribe, Arruitz, Astitz, Atallu, Azkarate, Azpirotz, Baraibar, Betelu, Errazkin, Etxarri, Gaintza, Gorriti, Intza, Iribas, Lekunberri, Lezaeta, Madotz, Mugiro, Oderitz, Uitz eta Uztegi.

· ARGITARATZEN DU:
Maillope Kultur Elkartea.
L.G.: NA 719/93
Maillopek ez du bere gain hartzen bertan adierazitako iritzi eta esanen erantzukizunik.
issuu.com/maillopealdizkaria

· ERREDAKZIOA:
Agurtzane Altuna, Urko Aristi, Mikel Hernandorena, Ane Ubegun, Arantxa Mikeo, Ainhoa Beraza eta Andoni Tolosa.

· ARGAZKIAK:
Araxes Eskola, Karlos Zubieta, Maria Jesus Ayestaran, Juan Antonio Garaikoetxea, Ioseba Ordoki, Mikel Irujo, Errigora, Unai Ijurko, Lekunberriko Udala, AEK, Maria Sotil.

· PUBLIZITATEA:
Labrit Multimedia - 948 210 103 - maillope@labrit.net.

· MAKETAZIOA:
Noe López, Mikel Urriza eta Oroitz Zabala.

· TIRADA: 1.600 ale.

Nafarroako Gobernuak, eskualdeko Udal, kontzeju eta bazkideek babestutako aldizkaria.

Gobierno de Navarra  Nafarroako Gobernua

LABRIT
MULTIMEDIA

04 ► **KUXKUXEAN** Maiatzeko zorion agurrak.

08 ► **IZAN GAZTE** Sexu-transmisiozko eritasunak.

09 ► **ELKARRIZKETA**



Jaione, Raul eta Luar.

12 ► **BATZARRE** Emakume artzainei aitortza.

14 ► **ERREPORTAJEA**



Aniztasuna aberastasuna da

18 ► **KULTURA** Ipuin lehiaketa.

24 ► **KIROLA** Araxesek bi txapel irabazi ditu.


26 ► **ERREPORTAJETXOA** Korrika argazkitan.

28 ► **PLAZATIK PLAZARA** Energia komunitateak


31 ► **AGENDA**

Peru Esnaola Sotil

Maiatzaren 26an, 5 urte.
Zorionak, Perutxo!!!
Asko matte zattugu,
muxu handi bat
etxekoen partez!!

**Naroa Elordi Ilarregi**

Maiatzaren 11n, 11 urte.
Zorionak, politte!!
Urtebetetzeko egun ederra pasa.
Disfrutatu eta familian ospatuko
dugu. Besarkada eta muxu pila
familia guztiaren partetik.

**Jakes Iturrioz Cruz**

Maiatzaren 11n, 13 urte.
Zorionak!!! Aupa Jakes!!!

**Ane Etxeberria Arguiñarena**

Maiatzaren 22an, 5 urte
Zorionak potxola! Bost
urte! Ze handia! Jarraitu
horren neska alaia eta
jatorra izaten. Muxuak
Eneko, aitatxo, amatxo eta
familia guztiaren partez.

**Eneko Etxeberria Etxarri**

Maiatzaren 12an, 6 urte.
Zorionak, korrikalari!!
Laster dator zure eguna eta zurekin
batera ospatuko dugu!!
Zure ondoan dena festa bat da!!
Muxu handi bat!!

**Zorionak, Lorea!!!**

Maiatzaren 2an, 13 urte!!!
Muxu handi bat etxeko
guztien partez.
Segi horrela!!!

Mailope aldizkaria zorion agurrak jasotzeko irrikan dago!
Idatziezaguzu mailope@labrit.net e-postara hilaren
20a baino lehen.



Salmenta publiko zuzena prezio ezin hobean
Ordutegia, 9:00etatik 13:00etara eta
14:30etatik 17:00etara



**BACALAO
ELKANO
S.L.**

Industrialdea, 11
31870 Lekunberri - Nafarroa
Tel.- 948507319 Fax.- 948604792
bacalaoselkano@jet.es
www.bacalaoselkano.com



BETI KOZKOR MAILAZ JAITSI DA

Nafarroako hirugarren mailan (RFEF) zegoen Beti Kozkorrek 3 eta 1 galdu zuen Txantrearen aurka apirilaren 30ean, eta, ondorioz, Nafarroako Lehen Autonomikoa mailan jokatu-ko du hurrengo denboraldian. Partida oso garrantzitsua zen bi talde-entzat, play-off-ak baitziren, baina, tamalez, Lekunberrikoek ezin izan zuten ezer egin. Hala, Txantreak mailari eutsi ahal izan dio.



TAXI ZERBITZUA 2 EUROAN

Beteluko, Larraungo eta Araizko udalek taxi zerbitzua jarri zuten martxan orain urte batzuk, garratio zerbitzuan aurrerapausoak emateko helburuz, eta, horri esker, herritarrek euro baten truke erabil zezaketen taxia herri batetik bestera joateko. Orain, berriz, prezioa igo dute: 2 euro ordaindu beharko dira, eta ordutegia bertako taxistaren arabera izanen da.




SOLETE SARIA MUGIROKO BENTARENTZAT

Mugiroko Bentari eman dio Repsol gidak Solete sarietako bat. Hain zuzen, bidaiaria batean bertan gelditu eta zerbait jateko toki "ezin hobeak" direnei egiten die aitortza sari horrek. 319 ostatu saritu ditu denera, eta horietako zortzi Nafarroan daude: Mugiroko Bentaz gain, Iratzar (Arakil), Izan Ondo (Arbizu), La Conrada (Gares), La parada de Zuriain (Esteribar), Arkangoa (Altsasu), Ultzamako Benta (Arraitz) eta El lechueguero (Cascante).

► Andrea Etxarri (Errazkin)



*Gustura egon liteke
norbera lanean
harremanak zainduaz
lankideen artean
tratua justua eskatuz
hau egon ezean
gehiegi_ ez luzatuaz
bizi behar denean
motiboz ospatzeko
Maiatzan 1ean.*



Doinua: Hamalau heriotzena. Hurrengoa: Ibon Barberia.

GURPIL AULKI HEGALARIAK

Garai hartan, edo lehenago, Iruñeko Udalean, Juan Ramon izeneko gizon bat zen udal arkitektoa, eta, arkitektura oztupoak zirela-eta, behin baino gehiagotan suertatzen zitzaigun berarekin hitz egin behar izatea, batzuetan, taldean, Koordinakundeko beste kide batzuekin, eta, besteetan, bakarka, hau da, bera eta biok, hitzordua neronek eskatuta, oztupo haietaz kopetaraino nazka-nazka egoten nintzelako.

Gizona ez zen bereziki goxoa eta atsegina gurekin, eta, jakina, ezta nirekin ere; nirekin, beharbada, gutxiago oraindik, alamina dezente ematen niolako. Gauzak hala, egun batean, goizaren bukaera aldean, ordu biak inguruan-edo, bere bulegora joan nintzen batere hitzordurik eskatu gabe, izan ere, pertsona harekin ere, zail samar gertatzen zen hitzordua lortzea. Horretan, antz handia zeukan alkate jaunarekin, eta, noski, jakina den bezala, berarentzat lan egiten zuen une hartan, Iruñeko Udaletxean.

Gorago esan bezala, ni behinik behin, oso nazkatuta eta haserre nengoen oztupo arkitektonikoen gai aspergarriarekin, edozein tokitan jasan behar izaten nituelako haien ondorio gogaikarriak, eta, gainera, aldi berean ikusten nuelako, ordura arte, behintzat, udalak ez zuela neurri erabakigarriarik hartzen, zirt edo zart egiteko.

Era hartan, bada, Juan Ramonen bulegora iritsi nintzenean, 14:00ak pasatxo izanen ziren gutxi gorabehera; ni, neronen kautan, <Ea zer gertatzen den, ba. Ikusi egin behar zorte ona daukadan eta bere mahai inguruan hartzen ote nauen, pixka batean bederen, hitz egin ahal izateko, ala ez>.

Bere bulegoko atean kas-kas jo eta handik gutxira agertu zen. Ni ikusiz batera aurpegiera zeharo aldatu zitzaion, txarrerako, jakina.

-Baina, ze arraio egiten duk hik berriz hemen ordu honetan, eta, gainera, hitzordurik eskatu gabe? -bota zidan ziplo, biziki haserre.

-Barkatu, baina jakin nahi nian ea aukera ote duan ni oraintxe bertan hartzeko, bi hitz egiteko -esan nion herabe, bere aldartea ezagututa.

-Ba, sentitzen diat, baina oso lanpetuta nagok, eta, hobe izanen duk etortzen bahaiz beste egun batean; gaur ezin diat. Ai, eta etorri nik hitzordua ematen diadanean, e? Bestela, ez! -erantzun zidan serio eta haserre gorrian, edonori beldurra emateko moduan. Jarraian, barrura sartu eta atea kolpe handi samar eta zakar batez itxi zuen.

Erreakzio hura ikusita, hantxe bertan itxoitea erabaki nuen, gorpil aulkian berean, hiruretarako minutu asko falta ez zirela erreparatuta; orduan bukatu beharko baitzuen bere lan jardunaldia.

Gauzak hala, egonarri pixka batekin itxaron eta arratsaldeko hirurak jo bezain laster, hantxe agertu zen arkitekto jauna, atean, baina, lehenago bezalaxe, ni bere aurrean ikusi bezain agudo, sutan jarri eta:

-Baina, baina, jakin liteke ze kristo egiten duk

oraindik hemen, alajainkoa? -jaurti zidan azkon bat balitz bezala.

-Bueno, ba, lehenago ere esan diat hirekin hitz egin nahi nuela, arkitektura zenbait oztupori buruz, baina ahoa bete hortz utzi nauk eta horrexegatik itxoin diat, orain lasaiago mintzatu ahal izateko -nik, apalki. Baina, esan banion, esan nion.

-Ez, ba, arraioa! Nik oraintxe bertan bazkaltzera joan behar diat eta ez zeukaat inorentzat denborarik. Lehen ere esan diat zer egin behar duan nirekin hitz egin nahi baduk!; alde zurratik hitzordua eskatu, ostia! -eta lurrerantz begira, kale aldera hasi zen joaten, biziki haserre.

-Baina, badakik arazo asko ditugula aulki gurpildunean ibitzen garen pertsonok, eta, horri buruz, hain zuzen ere, zertxobait proposatu nahi nian -azaldu nion kanpora gindoazen bitartean.

Udaletxeko atzealdeko aterantz abiatuta, dagoeneko bion arteko eztabaidaren tonua gogortzen joan zen. Santo Domingo kaleraino iritsi ginenean, oraindik eztabaida bizian jarraitzen genuen; sutsuki.

-Zuek leku guztietan ibili nahi duzue, pertsona normalak bezala, eta hori ezinezkoa duk. Hementxe bertan, Santo Domingo kalean, zuek gurutzatu nahiko zenukete alde batetik bestera, edozein lekutan, nik bezalaxe, eta hori ezin onartuzkoa duk -bota zidan brast, batere lotsatu gabe.

-Horrekin zer esan nahi duk, gu ez garela pertsona normalak ala? Zer gara, ba, anormalak? Gainera, guk, inondik inora, ez diagu eskatzen, eta, askoz gutxiago oraindik exijitzen, leku guztietan barna gurutzatu ahal izatea, baizik eta eginak dauden zebrabideak, praktikatu ahal izatea, hau duk, zeharkatu ahal izatea -erantzun nion serio eta tenkor.

-Zuek lortu behar duzuen, ordea, zera duk, espaloiak eta eskailerak igotzen dituzten gorpil aulkiak, eta kito! Horrela ez diagu deus ere egokitu beharko, eta, behingoz, bakean utziko gaituzue! -hori esanda, nonbait, lasai baino lasaiago gelditu zen eta patxada ederrean hanka egin zidan, atzera une bakar batean ere begiratu gabe.

Xanti Begiristain Madotz.

Auritz. 2021-02-06.

Zure iritzia bidali nahi badiguzu idatzi mailope@labrit.net-era hilaren 20a baino lehen.

"ERREFUS TXAPELKETA"

"LA RESTO COPA"

ERREFUSA MURRIZTEAK SARIA DU RESTA Y GANA

ERREFUSA MURRIZTEAK
SARIA DU

183 Udalerri nor baino nor
arituko dira 2 hilabeteen
"errefus" gutxiago nork
bilduko.

2022ko MAIATZAREN 2tik
UZTAILAREN 2ra

GUTXIAGO EDUKIONTZI BERDEAN
ETA GEHIAGO URDINEAN, HORIAN
EDO MARROIAN

- GUTXIAGO GEHIAGO DA+

REDUCIR LA FRACCIÓN RESTO,
TIENE PREMIO

183 Localidades competirán
por ser las que menos cantidad
de residuo "de resto" recojan
en 2 meses.

DEL 2 DE MAYO AL
2 DE JULIO DE 2022

MENOS AL CONTENEDOR VERDE Y
+ AL AZUL, AL AMARILLO O AL
MARRÓN

- MENOS ES MÁS +





“Sexu-transmisiozko infekzioa dut” (I)

Etzarri-Aranazko Sexu eta Ugalketa Osasuna Artatzeko Zentroko kideen laguntzarekin.

Baieztapen hori gutxitan entzuten dugu sexu harremanak izatera goazenean. Jende gutxik adierazten du modu irekian. Gehienoi lotsa, beldurra eta kezka sortzen digulako.

Gaur egun, informazio ugari daukagu sexuaren inguruan, baina zer dakigu sexu-transmisiozko infekzioei buruz?

Normalean kontaktu sexualetan gertatzen dira eta infekzio horiek sortzen dituzten bakterioak, birusak edo parasitoak odolaren, semenaren, baginako fluidoan edo gorputzeko bestelako fluidoan bitartez transmititu daitezke pertsona batetik bestera.

Beraz, sexu-harremanak dituen edonor dago arriskuan, edonor infektatuta. 90eko hamarkadan Hiesa xiringak partekatzen zituzten drogazaleen artean hasi zen hedatzen eta horregatik oraindik ere infekzio mota hauek drogazaleekin lotuta daude gure imajinarioan.

Baina, gutako edonor kutsatuta egon daiteke, gutako edonork kutsa zaitzake. Baita drogazale itxura ez duen mutil edo neska kirolariak ere. Bai, zure bikotekidea ere izan daiteke!

Zergatik? Posible delako infekzioa duen pertsona horrek kutsatuta da-

goela ez jakitea. Izan ere, zenbait kasutan sexu-transmisiozko gaixotasunen sintomak ez dira momentuan azaleratzen. Batzuetan kutsatu eta egun batzuetara agertzen dira sintomak eta beste batzuetan, urteak eman ditzakegu kutsatuta ezer antzeman gabe.

Azken urteotan nabarmen areagotu dira sexu bidezko gaixotasunen infekzioak. Hiesaz kutsatutakoek tratamendu antirretobirala jasotzen dutenetik kasu horiek erregistratu egiten dira eta izugarri gutxitu dira. Kezka handiena gainerako gaixotasunek sortzen dute. Sifilisa eta gonorea dira gaur egun gehien zabaltzen ari direnak.

Bakterioek sortutako infekzioak dira biak eta oso erraz kutsatzen da. Antibiotikoa hartuz erraz sendatzen diren arren, ez bada tratatzen gaixotasun larriak eragin ditzake luzera.

Zergatik ari dira hedatzen?

Gaur egungo gazteek ez dituzte ezagutu Hiesaren urte gogorrenak eta horrek orokorrean sexu-transmisiozko gaixotasunen arriskua gutxiestea ekarri du. Helduak ere, denboraren poderioz lasaitu egin dira. Izan ere, sexu-transmisiozko

infekzioez ari garenean, askotan gazteengan jarri ohi da fokua, baina datuek diote kutsatutakoaren artean gazteak bezainbeste edo gehiago direla 40 urtetik gorakoak. Beraz, inor ez dago salbu.

Bestalde, azken hamarkadetan haurdunaldia saihesteko antisorgailu hormonalen gorakadak ere badu zirikusia. Haurdunaldia saihestearekin konformatu eta lasaitu egin gara eta kondoiaren erabilera nabarmen jaitsi da.

Gainera, estatistikek diote zenbait sexu praktikaren aurrean (aho sexuaz ari garenean esaterako) ez direla neurriak hartzen.

Zein da gakoa?

1. Zaindu eta neurriak hartu.
2. Ez baduzu neurririk hartu eta infekzioen bat izan dezakezunaren susmoa baduzu, sintomarik ez izan arren ez izan zalantzarik eta joan zaitez Osasun-zentrora, Sexu- eta Ugalketa-osasunaren Arretarako Zentrora edo Sare elkarteak eta Hiesaren aurkako Nafarroako Batzordera.

Datorren alean hedatuen dauden gaixotasunen sintomak ezagutuko ditugu.

Iñigo Garaioa
MARGOLARIA
696 658 288
LEKUNBERRI

German Lasarte
HARATEGIA
Arbeondo
Aralar kalea 9
Lekunberri
948504157

MALLOAK
ARTZAI GAZTAK
Granja Martikorea, GANTZA, Nafarroa
Jabi. 649 472 057 + Iocune. 680 311 097
Malloak.com | info@malloak.com

GALBURU
okindegia - panaderia
Egur-labean egina!
Alde Zaharra 50
LEKUNBERRI
948 50 40 42

“Bildutako dirua haurren minbizia ikertzeko izango da”

lazko abuztuan gibeiko minbizia diagnostikatu zioten Luarri, 3 urte bete berritan. Tratamendua Madrilen egin diote, eta okerrena pasatu du jada. Raul eta Jaione gurasoek Kaskamotz Eguna antolatu dute ekainaren 11rako, Uitzin, haurren minbizia ikertzeko dirua biltzeko. Dohaintzak eta izen emateak egiteko webgunea irekita dago: <https://kaskamotz.org/>.

Zer moduz dago Luar? Eta zuek?

Orain esan dezakegu ongi dagoela. Tratamenduaren parterik gogorrena bukatu du, baina jarraipen bat egiten diote hiru hilabetean behin, eta Madrilera joan beharra daukagu horretarako. Han egin diote tratamendu guztia hasieratik, eta, ondoren, proba guztiak ere han egingo dizkiote. Halere, dena

oso berria denez guretzat, alerta puntu batekin gabiltza; horrelako esperientzia baten ondoren zaila da guztiz erlaxatzea, eta arrasto handia uzten dizu. Medikuek esan digute normala dela gurasoek babesteko behar hori sentitzea. Baina, tira, Luar ongi dago, pozik, energiarekin. Tratamenduan pattalaldi batzuk izan dituenek, nahiz eta dena oso ongi eraman


duen orokorrean, orain oso indartsu sentitzen da. Beti izan da oso ume zoriontsua, baita prozesuan ere.

Horrek asko lagunduko zizuen denei.

Beti egon da alai, zerbait egiteko gogoz. Ospitalean ere erabat musika jarrita egoten zen, abesten, eta horrek pixka bat laguntzen dizu holako egoera bati aurre egiten. La Paz ospitalean oso egoera gogorak ikusten dituzu, eta lur jota bueltatzen zara. Ez da zure kasua bakarrik. Haur pila bat daude pediatriako eraikinetan, eta egoera larri asko ikusten dituzu. Orduan pentsatzen duzu zer egin dezakezun, nola atera hori guztia aurrera, nola lagundu... Hala hasi ginen pentsatzen zer egin genezakeen, eta bururatu zitzaigun zerbait antolatzea, gutxi izan arren, ahal dugun heinean laguntzeko.

Luarrentzat ere gogorra izango zen hori guztia, baita zuentzat ere semea hola ikustea, ezta?

Gogorra da zer daukan esaten dizutenean. Beste kolpe bat izan



Familia Uitziko plazan. Arg: Labrit.

“Ez genion deus nabaritu; ez zuen ez sabeleko minik, ez sukarririk, ez beherakorik”



Madrilgo La Paz ospitalean. Arg: Jaione

zen esan zigutenean hemen ezin zutela tratatu eta Madrileran joan behar genuela. Iruñean izango balitz behintzat, etxetik gertu... Gibelego tumorea zenbaterainokoa zen esan ziguten hemen, zenbat erasango zion, eta Iruñean ez zekiten transplante bat egin beharko zioten edo operatuta nahikoa izango zen. Gainera, tumore mota horiek oso gutxitan agertzen dira: milioi bat haurretik batek baino gutxiagok izaten du. Holako tumoreak direnean, Madrilgo ospitaletan zentralizatzen dituzte kasu guztiak.

Nola moldatu zineten Madrilan?

Joan ginen aurreneko aldia esan ziguten buruan sartzeko bi egunerako edo bi hilean behin joango ginela. Noiz itzuliko ginen jakin gabe joan ginen. Berez nahiko gogorra da entzutea zure semeak minbizia daukala, eta horri gehitzen badiozu Madrileran joan behar duzula... Helduok ziurgabetasunak hiltzen gaitu, ez jakiteak zer gertatuko den. Oso gogorra izan zen bai guretzat eta bai hemen geratu ziren familiakoentzat. Hasieran joan-etorrian ibili ginen, baina bidaiak astunak egiten zitzaizkigun, lehertuta bukatzen genuen, eta Luarri ere eragiten zien. Ez bidaia bera bakarrik: daukazun urduritasuna, zer esango diguten,

“Orain arte haurren eta helduen minbiziak alderatu izan dira, eta akats asko daude: haurren zelulak haziz eta berrituz joaten dira, eta tratamendu mota ere oso desberdina da”

nola egongo den...

Ondoren, egonaldiak luzatu behar izan genituen, ezin ginelako astero ibili gora eta behera. Hamabost egunean behin jartzen zioten kimioa, baina erdiko astean analisi kliniko bat egiten zioten, eta analisi simple hori egitera ere Madrileran joan behar genuen, ezin baitzioten Iruñean egin. Lehenengo, Adano elkarteak hotel bat eskaini zigun, ospitale inguruan. Pisuak bazeudela esan ziguten, baina koronabirusagatik murriztuta zeuden, eta gu joan ginenean ez zegoen pisurik aukeran. Gero, Iruñeko emakume batek, nire lagun baten amaren lagun batek, esan zigun bere Madrilgo pisua erabil genezakeela, eta pila bat eskertu genuen, gure txokoa sortu genuelako Madrilan. Denboraldi luzeak ere egin ditugu: esaterako, ebakuntza egin ziotenean, bi hilabete inguru eman genituen han jarraian. Pisuak asko lagundu zigun, eta batez ere Luarrek bere espazioa

zuelako, bere Madrilgo etxea zela esaten zuen. Pisu bat izanda, pozik ibili zitekeen bere jostailuekin, lasterka ibili, eta ez hotel bateko logela batean entzerratuta. Gainera, bestela ere denbora asko eman du gelatik atera gabe: koronabirusa dela eta, ezin zela gelatik kanpo egon, eta guk biok ere txandaka sartu behar genuen haren gelara, ez baitziguten uzten batera sartzen.

lazko abuztuan jakin zenuten Luarrek gibelego minbizia zuela. Nola izan zen?

Luarrek 3 urte bete zituen iazko abuztuaren 13an, eta inoiz baino hobeki zegoen: poz-pez. Ez genion deus nabaritu. Ez zuen ez sabeleko minik, ez sukarririk, ez beherakorik. Urteak bete eta bost egunera, Jaionek koskor bar nabaritu zion sabelean, esnatu berritan laztantzen ari zitzaiola. Segituan joan ginen Iruñeko ospitalera; hiru egunez ospitaleratuta egon, eta Madrileran bidali gintuzten. Abuztuaren 23an egin zioten biopsia, eta ostegun horretan bertan hasi zen kimioarekin eta 27an ospitaletik atera ginen.

Lehen esan duzue Luarrek ez duela inoiz bizipoza galdu.

Holaxe egon da tratamendu osoan. Ospitalean igogailuan gindoazenean, gelara iritsi

aurretik, Luar kantatzen aditzen genuen dagoeneko. Ospitale hori oso tristea da, han ez du inork irribarre egiten. Pasilloan ikusten genituen haurrak lur jota egoten ziren, eta, pentsa: hori ikusi, eta aldi berean beti kantari eta pozik dagoen haur bat dago gela batean. Alaitasuna ematen dizu horrek. Luarri jende guztiak irekitzen zion atea kanta bat eskatzeko!

Horren kasu berezia izanda, informazio gutxi dago; nabarmendu duzue ikerketa dela gakoa.

Hara joan eta biopsia egin ondoren tumoreari izena jarri ziotenean, esan ziguten aurreneko gauza izan zen ikerketa batean sartzeko aukera zegoela, Europa eta mundu mailakoa zena, eta ea parte hartu nahi genuen. Harritu gintuena izan zen eman zigutenean txostenean jartzen zuela Europa osoan hirurehun haur baino ez zeudela ikerketa horretan, eta hori oso gutxi

“Tumore mota horiek oso gutxitan agertzen dira: milioi bat haurretik batek baino gutxiagok izaten du”

da. Horregatik, ona izaten da holako ikerketetan parte hartzea erabakitzea, informazioa lortzeko eta denak helburu berera ailegatzeko: ahalik eta azkarren sendatzea, ahalik eta tratamendurik suabeenarekin edo albo ondorio gutxiarekin.

Ikerketa oso garrantzitsua da, orain arte haurren eta helduen minbiziak alderatu baitira, eta, onkologoen arabera, ez dauka zer ikusirik; haurren zelulak haziz eta berrituz joaten dira, eta tratamendu mota ere oso desberdina da. Akats asko daude. Gertatzen dena da minbizia ikertzeko ematen dituzten diru laguntzak ez direla bideratzen holakoetara: haurren minbiziaren ehuneko %2koa baino ez da.

Cris Contra el Cáncer izena du laguntzen ari zareten fundazioak. Zer da zehazki?

Gobernuz kanpoko erakunde bat da, eta biltzen duten dirua haurren minbiziaren ikerketarako da. Argi genuen ikerketan lagungarri izango zen zerbait egin nahi genuela. Gainera, Luar tratatu duten onkologoak ere ikerketan aritzen dira, erakunde horren barruan; haiek zaindu zutenez Luar, lortzen genuen dirua haientzat izan zedin nahi genuen, gutxienez zuzenean ikerketara bideratzea. *Cris Contra el Cáncer* fundazioarekin harremanetan jarri ginen, eta azaldu ziguten gauzak nola egin. Erronka desberdinak daude, eta donazioak ere egin daitezke.

Horri tiraka antolatu duzu Kaskamotz Eguna. Dirua biltzea izango da helburu nagusia?

Saiatuko gara modu desberdinetan dirua biltzen, eta diru hori fundazio horri emango diogu. Dagoeneko ere ireki dugu donazioak egiteko webgune bat, <https://kaskamotz.org/>, eta Kaskamotz Egunaren inguruko informazioa ere badago, baita gure istorioaren laburpen txiki bat ere. Txapel batzuk ere egin ditugu, sinbolikoki saltzeko. Espero dugu inguruko enpresek eta dende kolaboratzea jai honetarako. Baten batek bere produktuak eman nahi baditu laguntzeko, ezin hobe: zozketa bat egingo dugu jasotako guztiarekin, eta horrekin lortzen dugun dirua ere ikerketarako izango da. Denetarik jasotzeko prest gaude: jogurtak, mamiak, haragia, barazkiak... lortzen dugunarekin egingo dugu jaialdia.

EGITARUA (Ekainak 11)

10:00: Mendi martxa Guratz mendira (9km), eta txikientzako tailerrak plazan

11:30-12:30: Porrotzekin irri, kantu eta amets landaketa

12:30-13:30: Tirikitauki dantza taldearen emanaldia

14:00: Bazkari solidarioa

16:00: Lekunberri-Larraun konpartsakoko kilikiak

17:00-18.30: Ene Kantak Dantzan

18:30: Txokolatada eta zozketa

Egun osoan Dj Oixani herriko plazan

Izena emateko eta donazioak egiteko: kaskamotz.org




**AURRERA
TABERNA
ARALAR, 15
948 60 47 24**

**TAXI
SOROA
609 168 217
Bederatzi plaza**

Antsonea
BASERRIKO GAZTA
948 513 468
www.antsonea.com
Uztegi (Araitz)

**OTXOTORENA
okindegia
ARRIBE**
**ADI!! TLF BERRIA:
948 51 30 32**



ERROMERIA UITZIKO SANTA ENGRAZIARA ETA DONE MIKELEN JAITSIERA

Pazko egunez, apirilaren 17an, erromeria egin zuten beste urte batez Uitziko Santa Engrazia basilazara. Ohi bezala, bertan izan zen Joxe Mari Zabaleta, eta nondik norakoak kontatu ditu. Uitziarrek ez ezik, Leitza eta inguruko herrietatik ere joan zen jendea eguerdiko 12:30eko meza nagusira. Ondoren, Santa Engraziaren koplak abestu zituzten. Batzuk oinez joan ziren, mendiz, usadioari segituz. Egun berean, Done Mikel Aralarkoa santutegitik atera zen. 80 bat lagunek egin zuten ibilbidea Santutegitik Baraibarrera. Ibarreko herri guztiak bisitatu ditu.



EMAKUME ARTZAINEI AITORTZA, LEHEN ALDIZ

Emakume Artzainen Eguna ospatu zuten apiril bukaeran Lekunberrin, Plazaolako geltokian, lehen sektorean egin duten eta oraindik ere egiten duten lana aitortzeko. 32 emakume artzain inguru elkartu ziren, eta beren bizipenak kontatu zituzten; besteak beste, bertan izan ziren Karmen Lanz, Nikasia Arangoa, Bittori Eguzkiza eta Elena Elizalde. Aurrena, gazta dastaketa egin zuten; ondoren, solasaldia; eta eguerdian bazkaritxo bat egin zuten Plazaolan bertan.

OSTALARITZAN TREBATZEKO IKASTAROA

Hamabost lagun aritu dira apirilaren 20an eta 21ean Lekunberrin egindako ostalaritza ikastaroan ikasten. Maria Jesus Ayestarane gidatu du, eta ostalaritzako ikasle gazteek parte hartu dute. Lekunberriko formakuntza eta enplegu planaren barruan antolatu dute ikastaroa, eta oso pozik daude izan duen erantzunarekin.





LEHEN SEKTOREAN NOLA EKIN JAKITEKO IKASTAROA

Inoiz pentsatu duzu nekazaritzan edo abeltzaintzan hasia? Cederna Garalurrek mendialdean lehen sektorean aritzeko ikastaro bat antolatu du, Intia, CPAEN eta Mendialdea elikadura mahaiarekin batera. Maiatzaren 6an egingen dute, Plazaolako Partzuergo Turistikoan. Ekologikoan ari diren nekazari eta abeltzainen esperientziak aditu ahalko dituzu, eta zure istorio eta zalantzak kontatu. Izen emateko: 948-01 30 58 edo intia.es webgunean.



LEKUNBERRIN ETA GORRITIN IZANEN DU PARADA MENDIALDEKO AZOKA IBILTARIAK

Hirugarren urtez, Mendialdeko Azoka Ibiltaria antolatu dute inguruko eragileek, eta martxan da dagoeneko: apirilaren 24an Arribe-Atalluko frontoian jarri zituzten postuak. Ohi bezala, jende asko joan zen produktuak bertatik bertara ikustera eta giroaz gozatzera. Gainera, azokako produktuez osatutako saski bat zozketatu zuten erosleen artean. Hurrengo feria Lekunberrin egingen dute, maiatzaren 8an; baina maiatzean izango du beste parada bat ere: Gorritin egingen dute maiatzaren 15ean, eta latxa arrazako ahari genomikoen enkantea ere izanen da.

JUBILATUAK VIANA EZAGUTZEN

Jubilatuen elkartekoak han-hemenka dabilta azkenaldian, denbora ahalik eta gehien aprobetxatzen. Martxo bukarran Vianara, Kodeseko santutegira eta Los Arcosera joan ziren, eta primeran pasatu zuten. Maiatzean, gainera, Peñiskolara joanen dira, 16tik 25era. Gozatu bidaiaz!



Aniztasuna aberastasuna da

Beste herrialde batzuetatik etorri direnei laguntzeko asmoz abiatu du Larraun Bizi taldeak Larraun Mundiala egitasmoa. Harremanak sendotzeko sareak sortu nahi dituzte, eta, hala, komunitatea indartu. Izan ere, "ikusezin" izan ohi dira askotan bertakoentzat. Emakumeek, oro har, zaintzan egiten dute lan, eta gizonak azken lanetan. Rodrigok, Ahmedek, Indirak, Mariak, Sarak eta Sandyk atseginez eta hunkiturik kontatu dute azken urteotan bizitakoak.

Ezkerretik eskuinera, Sandy, Garbiñe, Indira, Sara eta Maria. Arg: Labrit.



Maitasunaren aldeko apustua egin zuelako bizi da gaur egun Lekunberrin Rodrigo Orozco. Orain dela hiru urte erabaki zuen Mexikon zuen bizitza atzean uztea eta hona etortzea, zer patu izanen zuen jakin gabe, itsu-itsuan, baina gogotsu. Bi urte zeramatzen gaur egun bere emazte denarekin; urrutiko harremana zuten, Rodrigo Mexikon baitzegoen, eta emaztea, berriz, hemen. Lekunberriko jubilatuen tabernako zerbitzari bezala ezagutu dute askok segur aski, han egiten baitu lan, emaztearekin batera.

Ahmedek lan kontratu bat lortu zuelako etorri zen Euskal Herrira, Marokoko Merzouga herritik; basamortutik, mendira. Hamabost urte dira jada erabaki hori hartu zuenetik, eta gurpilak konpontzen irabazten du soldata, Marokon turismo gidari bezala lan egiten zuen arren; hemen ez du lortu horretan aritzerik, baina gustatuko litzaioke.

Gure inguruan dauden hamaika istorioetako bi baino ez dira Rodrigorena eta Ahmedena. Euskaldun askok eta askok atzerrira joan behar izan duten bezalaxe bizitza hobe ba-

ten bila, beste askok ere hona etorri behar izan dute; betidanik egon da joan-etorri hori. Eta ez da pauso erraza: oso gogorra da nork bere herria utzi behar izatea, eta zaila izaten da baita ere leku berri horretara ohitzea, gustura sentitzea, harremanak egitea, integratzea. Are, ikusezin bihurtu ohi dira kanpotik etorritakoak bertakoentzat.

Araitz, Betelu, Larraun eta Lekunberrira ere pertsona dezente etorri dira azken urteotan beste herrialde batetik. Emakumeen kasuan, zaintza lanetan ari dira gehienak, helduak zaintzen batik bat; gizonen kasuan, berriz, azken lanak egiten. Baina herritarrak akordatzeko al dira horiekin? Onartu bai, baina saiatzen al dira laguntzen, integratzen? Egoera horiek ikusarazteko helburuz sortu du Larraun Bizi taldeak Larraun Mundiala izeneko egitasmoa. Bultzatzaileen arabera, beharrezkoa da ikusaraztea beste herrialde batetik etorritako asko bizi direla gurean, hemen lan egiten dutela, eta, horretaz jabetuta, uste dute talde nortasuna sortu behar dela. Horretarako, harremanak egiteko espazioak sortu nahi dituzte, errealitate horien guztien berri izateko eta hartu-emanak sendotzeko. "Kultur aniztasuna aberastasuna da,

kontuan hartu beharreko zerbait, eta ezin dugu alde batera utzi beste kultura batzuetako jende asko bizi dela gurean. Ikuspegi hori sustatu behar dugu”, azaldu dute.

Bidea ereiten hasi dira dagoeneko. Gaia ikusaraztea izan da lehen urratsa, eta galdetegi bat prestatu dute, bi helbururekin: batetik, beste kultura batzuetatik etorri direnen errealitateak ezagutzea; eta, bestetik, sare bat sortzea, harremanak egitea. Bestek beste, galdetegian galdetuko dute zergatik erabaki duten hona etortzea, zer arazo izan dituzten bidean, zein diren kezka nagusiak, arazoak, zer sumatzen duten faltan, egitasmoetan parte hartzeko prest dauden eta abar. Erantzunak aztertzean, ikusi ahalko dute zertan lagun dezaketen, zertan jarri behar den indarra, eta zein den norabiderik hoberena. Horrez gain, maiatzaren 21erako kultur aniztasuna ardatz izango duen egun bat antolatzen ari dira. Ibarreko gainerako eragileei eskatu diete beren kabuz ere horrekin lotutako zerbait antolatzeko, “Larraun Mundiala ez baita inorena”: “Gainerakoek ere beren dinamikak egin ditzatela nahi dugu. Egun horretako helburua da sarea egitea, harremanak izatea eta kultur aniztasuna zerbait positibo bezala ikusaraztea, eta argi uztea ez dela arazo bat”.

Hiru urte luze

Hiru urte eman behar dituzte hemen erroldatuta bizitzeko baimena lortzeko; edo eskatzeko, behintzat, hobeki esanda. Bitarte horretan, eta lan kontratu bat lortu ere, beldurrez bizi ohi dira kanpotik etorritakoak, zer gertatuko zaien jakin gabe. Prozesu horretan laguntzen aritzen da Edurne Razkin gizarte langilea. Azaldu du gaur egun hiru eta erdi behar izaten dituztela gutxienez tramitazio guztiak behar bezala egiteko, eta asko direla hala bizi direnak: “Beti daude beldurrez. Niri andre askok esan didate beldur direla, harrapatuko duten beldur. Oso latza da hala bizi behar izatea.



Ahmed eta Rodrigo. Arg: Labrit.

Gainera, tarte horretan ezin dira beren herrialdera itzulira, familiarengana. Prozesu luzea eta gogorra da”.

Emakumeen kasuan, gainera, seme-alabak agurtu behar izaten dituzte hona etortzeko, eta itxaronaldia are luzeagoa eta gogorragoa egiten zaie. Sara, Maria, Indira eta Sandyren kasua da hori, esaterako. Arribeko IKArean euskaltegian euskara ikasten dute, eta Garbiñe Sagastibeltza da beren irakaslea. Hizkuntza bera ikasteaz gain, “elkartzeko, deskonektatzeko eta ongi pasatzeko” toki bat da haientzat euskaltegia, eta Garbiñe Sagastibeltza haien bidelagun da espazio horretan, irakaslea eta laguna baita aldi berean. Lau emakume adonetsu eta indartsu dira Sara, Maria, Indira eta Sandy; bakoitzak bere istorioa du, bide luzea egin behar izan

dute gaur eguneraino, baina, halere, irribarretsu eta atsegin handiz kontaktu dute bizitakoa.

Indira da lauren artean denbora gehien daramana hemen. Orain dela 11 urte ailegatu zen ibarrera, Nikaraguitik, egoera ekonomikoa hobetu nahian. Seme-alabak han utzi behar izan zituen, eta nabarmendu du hori izan dela gogorra. Ostalaritzan lan egiten du, eta zahar etxe batean dabil praktikak egiten. Hemengo herritarrek harrera ona egin ziotela esan du, eta gustura bizi dela. Ikasteko gogoak bultzatu zuen euskaltegian hastera: “Inguruagatik erabaki nuen euskara ikastea. Zoazen lekura moldatu behar duzu, eta ikastea beti da ona”. Lanean ikasitakoa praktikan jartzen duela adierazi du, eta ulertu dezente ulertzen duela, baina beldur

Larraun Mundialaren helburua da harremanetarako espazioak sortzea. - Arg: Labrit.



16

Gainerako eragileek ere beren dinamikak egin ditzatela nahi dugu

rra ematen diola hanka sartzeak, eta horregatik ez dela hitz egitera ausartzen. Bikotekide euskalduna du, eta harekin ere saiatzen da.

Mariak, berriz, hasieratik izan du oso garbi zergatik utzi zuen Nikaragua atzean: "Nire helburua da nire semea hona ekartzea; hari etorkizun hobe emateko etorri nintzen". Hiru urte daramatza gizon edadetu bat zaintzen, eta esan du hemengo jendearekin ongi moldatu izan dela beti: "Jendea atsegina da, lasaia...". Euskaraz zergatik ikasten duen galdetuta, irribarre zabal-zabala marraztu zaio, berriro akordatu baita semearekin: "Nire semea hona etorriko denez eta hemen ikasiko duenez, hari etxeko lanak-eta egiten laguntzeko ikasi nahi dut, oinarritzkoa behintzat". Gu-txi geratzen zaio ametsa betetzeko, laster izango baitu dena prest.

Sei lanpostutan aritu da Sandy orain daukana lortu arte. Mariaren antzera, orain dela hiru urte etorri zen, eta seme-alabek ahalik eta etorkizunik hobereana edukitzeko zeharkatu zuen itsasoa. Etorri zenean, bere semeak hamar hilabete baino ez zituen, eta alabak, berriz, 5 urte. Azaldu du lagun baten bitartez etorri zela, eta gustura dagoela, bai lanean, bai herrian ere: "Herria izugarri gustatzen zait, eta lan egiten dudan etxean gustura nago, pozik". Lan egin behar ez duen orduetan joaten da euskal-

tegira euskara ikastera, eta izugarri eskertzen du Garbiñek ematen dion laguntza: "Irakaslea da, eta norbaitek hitz egin nahi dudanean ere asko hitz egiten dut Garbiñerekin".

Sararen alaba bera baino lehen etorri zen Euskal Herrira, eta haren-gatik eta ilobagatik etorri zen bera. Hondurasen ez zeukan lanik, eta hemen lana lortu zuen. Urtebete pasatu da ordutik. Gainerako neskek ezagutu zituenean hasi zen euskaltegian. Azaldu du askotan ezin dela eskolara joan, lana dela-eta, baina oso gustura sentitzen dela, eta ahal duen guztietan joaten dela. Halere, aitortu du ez zaiola erraza egiten euskara ikastea: "Beste hizkuntza bat ikastea ez da erraza, baina irakasleak pazientzia handia dauka. Nire helburua da nire ilobarekin euskaraz egin ahal izatea". Hemengo jendea zer iruditzen zaion galdetuta, pozik dago harrekin: "Gustura sentitzen naiz, oso leku lasaia delako, jendea atsegina da. Ez daukat ezer txarrik esateko".

Ahmed, Rodrigo, Sara, Maria, Indira eta Sandy. Seiak bizi dira gustura gaur-gaurkoz gurean, eta aurrerantzean ere hemen segitzea espero dute, etorkizun oparoa heldu zaialakoan. Pozik daude, "lasai", baina herritarren lana ere bada haiei eskua ematea eta bidea erraztea. Aniztasuna aberastasuna bada, heldu die zaiogun gogor horri.

IORTIA CLÍNICA DENTAL · HORTZ KLINIKA

Juanjo Gaite García · Odontologoa Kol. Zbkia. 317
Estitxu Telleria Elorza · Odontologoa Kol. Zbkia. 591

Lekunberri: 948 604 804 · 618 818 005
Altsatu: 948 467 603 · 667 66 17 69

ODONTOLOGIA OROKORRA · INPLANTEAK ·
ORTODONTZIA · HORTZ-ESTETIKA · PADI

tanatorios
IRACHE
Betidanik

ALTSASU - IRURTZUN
LEKUNBERRI - BETELU - LEITZA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

24 ORDUKO TELEFONOA

· 948 19 70 70 ·
www.tanatoriosirache.es

LARRAUN-LEKUNBERRI

240 lagun baino gehiago elkartu dira Kinto Egunean

Bi urteren ondoren, festa giroan ospatu zuten Kinto Eguna Lekunberrin, apirilaren 23an. Trinketa jendez lepo zegoen bazkarian: 240 lagun baino gehiago bildu ziren. Joanes Illarregi eta Maialen Akizu bertsolariek girotu zuten bazkalostea. Arratsaldean, Eztanda txarangaren doinuen bueltan egin zuten poteoa, eta gauean DJ Oixani aritu zen trinketean musika jartzen.



LEKUNBERRI

Maiatzaren 30era bitarte aurkez daiteke Angel Urrutia Iturbe XXI. Olerki Sarira



Lekunberriko Mitxausea kultur etxeak antolatzen duen Angel Urrutia Iturbe Olerki Sariketara aurkezteko epea zabalik dago: maiatzaren 30era bitarte bidal daitezke lanak. 18 urtetik gorako olerkariak parte har dezakete, eta lanak 300 eta 600 bertso artekoak beharko dute izan, gai eta egitura librean idatziak. Epaimahaiak urrian jakinaraziko du sariduna. Irabazleak bere olerki lanarekin argitaratutako olerki liburuaren 150 ale jasoko ditu opari. Lanak Mitxausea kultur etxean aurkeztu beharko dira. Informa zaitez: 948-60 45 82 / mitxausea@yahoo.es.



**Construcciones
Gañarbe**

ERREABILITAZIOAK
IGELTSERITZA
FATXADAK
TEILATUAK

📍 Oztegin kalea 2, Lekunberri
✉ construccionesganarbe@gmail.com

☎ 616 457 540
☎ 636 827 846



NEKAZARI, S.L.
Kubota
STIHL®
ANTONIO CARRARO

Olagain. Mugiro. Nafarroa
Tel.: 948504128
Fax: 948504377
nekazarisl@hotmail.com



BIDEGOXO JATETXEA

Jaunartzeak
Ezkontzak
Ospakizunak
Enpresa ekitaldiak

Usabal Kiroldegia
20400-TOLOSA 943 577 573
info@bidegoxo.com

Landa eremua erdigunera



Jule, Egoitz, Inge eta Izarne, lehiaketako irabazleak. Arg: Labrit.

Errigora egitasmoak Nafarroako hegoaldeko produktuez osatutako saski bat oparitu zion Mailoperi, eta aldizkariko kideok erabaki genuen ibarreko gaztetxoenei ematea saski hori irabazteko aukera. Horretarako, ipuin lehiaketa bat antolatu genuen Araxes eskolan, eta DBH 1. eta 2. mailakoek ipuin ederrak sortu zituzten, Landa eremua gaitzat hartuta. Eskerrik asko parte hartzeagatik, eta zorionak irabazleei!

18

DBH 1. maila

1. SARIA: Egoitz Oreja

Sutea Aralarren

Bazen behin Telmo izeneko gaztetxo xume bat, etxea, lagun bat eta txakurrak behintzat bazituena; lzu hiru urteko txakurra eta Xarpa seikoa.

Telmok hamalau urte zituen, al-tua zen, ile iluna zuen, jatorra zen eta indartsua. Telmok gurasoak ere bazituen. Biak oso baldarrak ziren, hain baldarrak Telmok eskuak gurinezkoak zituztela esaten zuen.

Telmo Araizko herri txiki eta lasai batean bizi zen. Han baserri bat zuten, Intzan, landa eremu zabal batean.

Istorio hau beraien baserrian gertatu zen, goiz lasai batean. Dena ehiztari anker batzuegatik gertatu zen.

Hau dena Telmoren txakurrak basora ihes egin zuenean gertatu zen. Txakurrak ehiztari batzuekin egin zuen topo eta ehiztariak untxi bat

zela uste zuten bere atzetik joan ziren. Xarpak ihes egitea lortu zuen, baina zauriturik. Xarpak etxera itzultzea pentsatu zuen eta halaxe egin zuen.

Etxera itzultitakoan denek eskuak zabalik hartu zuten Xarpa eta gehienbat Telmoren aita besarkada ikaragarri batekin. Baina laster joan zitzairen poz hura, aita Xarparen zauria ikusi baitzuen eta laster zauria sendatzen hasi ziren.

Hurrengo egunean Xarpa oraindik okerrago zegoen eta Telmoren aita arduratzen hasi zen. Orduantxe ehiztari tiro hotsa entzun zen. Basoaren bihotzetik zetorren sufrimendua sortzen zuen hots anker hura.

Orduantxe Telmoren aitari pentsamendu bat sortu zitzaion.

-Ehiztariak izango zituan seguru, seme!!!

-Bai seguruenik!!!

Telmoren aita ehiztariengana joan zen hurrengo egunean oso haserre.

Ehiztariak hori entzundakoan be-
raiek ere haserretu egin ziren. Hori ez zen izan Telmoren aitarekin haserretu ziren lehenengo aldia. Ehiztariak Telmoren etxera joan ziren zer gertatzen zen begiratzera eta bere aita txakurra erakusterakoan, atsekabetu egin ziren.

Bi ehiztariak etxera zihoazen, baina bat purua erretzen ari zen. Telmoren aita kotxeko leihoa irekia zuen. Orduan ehiztariak purua lurrera bota zuen, baina hau zoritxarra kotxean sartu zen.

Handik minutu batera Telmok kanpoan argia ikusi eta kanpora at-
era zen zer zen ikustera. Aitari deitu eta aita mahukarekin hasi zen kotxea itzali nahian. Ama eta bi semeak ku-
boak urez bete eta kotxeari jaurtitzan hasi ziren. Ehiztariak sua ikusi eta segituan 112ra deitu zuten. Segituan heldu ziren suhiltzaileak sutearen lekura. Denen artean sua itzaltzea lortu zuten, baina Xarpa hil beharrean kotxea hil zen.

DBH 1. maila

2. SARIA: Jule Salvatierra

Hiritik herrira

Udaberriko goiz ohiko batean, Izaro beti bezala esnatu, gosaldtu, prestatu eta eskolara abiatu zen. Izaro oso neska altua zen, zerua bezain begi urdinak eta ikatza bezain ile beltza zuen. Denek Iza deitzen zioten.

Eskola bukatu eta etxera iritsi zenean, bere gurasoek berri on bat eman zioten. Berri ona aste santuan bere aitona etxera joan behar zuela zen, bere aitona pixka bat gaixorik zegoelako. Izarori ez zitzaion hori oso berri ona iruditu, aste santurako bere lagunekin izugarrizko planak eginda zituelako. Gainera, bere aitona etxea herri txiki-txiki batean zegoen eta bera hiri handi batean bizitzera ohituta zegoen.

Gurasoek, ez zioten baietz edo ezetz esateko aukerarik ere eman; horregatik, gogo txarrez, maleta prestatzera joan zen arratsalde hartan bertan joan behar zuelako.

Arratsaldeko seiak ziren. Izaro kopetilun auto barrura sartu zen eta aitona bizi zen herrirantz abiatu ziren. Autoan gutxi gorabehera bi ordu eta erdiz egon ziren. Bidean gauza asko ikusi zituzten: eguzkilorez betetako larreak, autoz betetako autopistak... baina bidean zehar ikusi zuten politena herrira sartzeko errepideak ziren. Oso estuak ziren ia bi auto pasa ezinekoak eta ikuspegi ederrak zeuden, urrutian mendi eder eta altuak ikusten baitziren.

Aitona etxera iritsi zirenean eta etxe ondoko barrutian ardiak zeudela ikustean, belarretan loreekin

eta ardiekin jolasean ibiltzen zela gogorarazi zuen. Gainera, egongelako koadro bat ikusita, bere aitona goitik behera margoz zikinduta margotu zuela gogoratu zuen. Txikitako oroitzapen horietan pentsatzean, aitona egoteko gogoia piztu eta negar malko bat erori zitzaion bere begi urdinetatik.

Urteak pasa ziren Izarok bere aitona azken aldiz ikusi zuenetik. Bera ikusi bezain pronto besarkada goxo eta luze bat eman zion. Bere gurasoek agur esan zien berriro hirira bueltatu behar zutelako eta segituan aitonaekin hizketan hasi zen. Gauza mordoa zuen berari kontatzeko.

Hurrengo goizean eguzkia ateratzean Izaro eta aitona esnatu ziren mendira joan behar zirelako. Aitona perretxikoak biltzen erakutsi nahi

zion. Izaro oso pozik zegoen inoiz ez zelako perretxikoak biltzera joan eta are gutxiago maite zuen pertsona batekin. Zorte handia izan zuten hamaika perretxiko aurkitu baitzituzten.

Etxera iritsi eta perretxiko tortilla goxo-goxo bat prestatu zuten bien artean. Egun horretan oso ongi bazkaldu zuten bata besteari txisteak eta asmakizunak kontatzen.

Gau hartan, Izaro ohera sartu zenean, barrenak pozik, sabaiari begira pentsatzen jarri zen. Hasieran aitona baserrira joan nahi ez bazuen ere, orain, zenbat gauza berri ikasi eta txikia zeneko zenbait oroitzapen gogoratu zituen. Orduan, lasai hartu zuen lo, aste santu hori gogoratzen zituen hoberenetarikoa izan zela pentsatuz.



Errigoraren kanpainaren hasiera 2021ean Ablitasen. Arg: Errigora.

CONSULTORIO VETERINARIO, S.L.

HIRUROK S. VETERINARIOS

Telefono zenbakia eta faxa:

948 50 43 31

Lekunberri

Errotaldea 19,
Lekunberriwww.martillotxiki.com
679 938 016NEKAZARITZA, INDUSTRIA ETA ERAIKUNTZA
ARLOETAKO HORNIGAIK
BURDINDEGI ETA BRIKOLAJEKO TAILERRA

URZUBI S.A.

Tel. 948 50 42 41

Fax 948 60 45 20

Lekunberri

urzubi@hotmail.com



DBH 2. maila

1. SARIA: Izarne Eskamendi

Bakarrik ez ginateke salbatuko

Argia ate joka zegoen herri hartara sartu nahian, baina ekaitza ez zegoen ados ordea, berak izan nahi zuen protagonista. Baina ume eder hura jaio zenean, herri guztia argitu zen. Herritarrak alai zeuden eta poza ageri zen denen aurpegietan. Baina zergatik? Zergatik horrelako poza ume batengatik?

2007-ko urriaren 30a. Nafarroako herri txiki hartako biztanle guztiak lanean zebiltzan, baraztetako fruitu guztiak biltzen. Abererik ez zen gertatzen kanpoan, eta dena jasotzean herritarrak etxean gordetzen ziren. Herri hartako biztanleak oso autonomoak ziren eta ez zuten elkar laguntzen. Beldurra nagusi zen eta denen pentsamendua berdina zen: aurten ere gertatuko ahal da? Baina inork ez zekien erantzuna.

Azkenean iritsi zen, etxe guztiak dardarka zeuden, eta bai, aurten ere gertatu zen. Arratsaldeko zortziak iritsi zirenean izugarritzko ekaitza hasi

zen. Tximista ikaragarriak, trumoi zaparradari buruz zer esanik ez. Txakurren zaunkak edonondik entzuten ziren eta umeak negar batean zeuden. Abereak urduritu egin ziren eta sarritan zuhaitzak erortzen ziren. Inork ez zekien zergatik, baina urtero gertatzen zen berdina. Uzta guztiak suntsituak amaitzen zuten eta aurten ez zen gutxiago izan.

Eguna amaitu zenean familiak eguzkiaren argitara irten ziren, eta aurten ere, berriro, baratza guztiak suntsituak zeuden. Ez zen elikagarrik salbatu. Herriko plazan kalabazak zeuden, tomateak kale guztietan ikusten ziren eta edozein balkoietan zeuden piperrak. Nekazariak lanean hasi ziren, beti bezala bakarka, inork inor lagundu gabe.

Handik hilabetera denek beraien baratzak berreskuratu zituzten eta berriro beraien eguneroko ohikerietara bueltatu ziren. Bazekiten hurrengo urtean berriro ere arazo berdinarekin topatuko zirela, baina koindarak dio, urriaren 31a baina aste bete lehenago umeren bat jaiotzen bazen, ekaitza betirako geldituko zela. Arazo bat zegoen ordea, herri hura oso txikia zen eta horregatik oso ume gutxi jaiotzen ziren, eta jaiotzen ziren gutxi horiek inoiz ez ziren data horretan jaiotzen. Hala ere, herrixka hartako herritarrek ez zuten inoiz esperantzarik galtzen.

Urte bat geroago, iritsi zen berriro herrixka hartako aste gorrotatuena.

Hostal Betelu

Eguneko menua, karta, plater konbinatuak eta pizza goxoak

Etorri eta on egin!

Erreserbak:
948513026
618557889

AMAIRU bar

GTXGKO PIZZAK,
KOPA BEREZIAK

948504352

ALIPROX
Lekunberri
janaridenda

hamabostaldi
eskaintza bereziak



CONSTRUCCIONES

ERAIKUNTZAK

CONSTRUCCIONES
URANGA/SAIGÓS, S.L.

TEILATUAK

FATXADAK

ERAIKINEN ZAHARBERRITZEA

665 708 683

Lekunberri

ERRIGORAK BABESTUTAKO IPUIN LEHIAKETA



Araxes eskolako DBH 1. eta 2. mailako ikasleak. Arg: Labrit.

Hango herritarrek ez zuten elkartasunik, ez zuten enpatiarik eta ez zuten inolako interesik beste pertsonengan. Baina bazegoen gauza bakar bat bazutena, itxaropena, eta urtero bezala ume bat jaiotzeko itxaropena zuten.

Urriaren 24an ez zen inor jaio eta nekazariak beraien bizitzarekin jarraitzen zuten. Urriaren 25an ere ez zen inor jaio eta nekazariak jada ez zuten ezer landatzen, 31rako ez baitzen haziko. Urriaren 26 eta 27an berdin jarraitzen zuten, baina nekazari gehienak beraien uzta jasotzen hasi ziren, baita oraindik ondu gabe zegoena ere. 28an esperantzak galtzen hasi ziren, honakoa ere ekaitzak bisitatuko zituen beste urte bat izango zela pentsatzen baitzuten. Baina

bat-batean herritar baten oihiak tritura guztiak usatu zituen.

- Ume bat jaio da! Ume bat jaio da!

Herritar guztiak entzun zuten pertsona hark esandakoa. Hainbeste urteren ondoren jaio baitzen umea. Poz malkoak zituzten denek aurpegietan. Inork ez zekien norena zen ume hura, baina bazekiten ekaitz madarikatu hura ez zela inoiz gehiago agertuko, eta ez zirela gehiago beraien uztak suntsituko. Herritar guztiak kalera irten ziren, besarkadak, irrifarrak, poza, ikusten zen. Alai zeuden denak.

Iritsi ziren urriak 31ko zortziak, zerua argi zegoen, ez zen hodei bat ere agertu. Herritarrak kalean zebiltzan, musika eta guzti, beldurrik gabe. Eta halaxe izan zen, ez zen

ekaitza agertu egun guztian. Plazan dantzari zeuden bitartean, emakume batek esan zuen:

- Ez genuen hau lortuko zu gabe - umearen ama seinalatuz.

Plazan zeuden guztiak txaloka hasi ziren, eta orduan, orduan konturatu ziren beraiek nahi zuten bezala, bakarrik biziko balira ez zirela salbatuko.

Handik aurrera denek denek barretzetan laguntzen zuten, arazoak denek artean konpontzen zituzten. Herria guztiz aldatu zen, ez zen beldurra bueltatu, ezta tristura ere. Herria alaiagoa zen.

- Baina amona, hau egia ahal da?
- Ez dakit, kondairak dira.

DBH 2. maila

2. SARIA: Inge Zubillaga

Zer pasa da gauean?

Bazen behin Joxe Mari izeneko gizon bat, baserritar arrunt bat. Oso jatorra zen denekin, langilea, jendea lagun-tzen zuen gizona. Ez zen inorrek in gaizki eramaten. Bakarrik bizi zen. Bere semeak beste hiri batean bizi ziren eta aurreko urtean bere emaztea, Izaskun, hil egin zen. Gizon gaixoa bakarrik geratu zen, nahiz eta bere semeek bisitak egiten zizkioten aste-buru guztietan. Lehen bere emaztearekin eta bere semeekin Amaiurren bizi zen, Nafarroako herri txiki batean. Baserri batean bizi ziren, baina Izaskun hil zenean eta bere semeak kanpora joan zirenean ikastera, denbora gehiena bere txabolan pasatzen zuen, mendian. Noizbehinka herrira jaisten zen bere lagun batzuk bisitatzera, janari gehiagoren bila eta tabernan pote bat hartzera, baina ez askoz gehiago. Behiak, ardiak, behorak eta ahuntzak zituen. Gehiena ardiekin ibiltzen zen, berarentzat berezianak ziren, inportanteenak. Izaskuni gogoratzen zien. Denbora asko pasatzen zuten mendian ardiekin Izaskunek eta berak, horregatik maitasun handia zien ardiei.

Egun arrunt batean, beste edozein egun bat bezala, ardiei harreria itxi eta herrira jaitsi zen lagunekin afari bat egin behar zuelako herri-

ko tabernan. Lasai jaitsi zen menditik. Tabernara iristean lagun guztiak juntatu eta mahai batean eseri ziren, zer afaldu pentsatzen. Afaria bukatzean tarte handi bat egon ziren hitz egiten oso gustura. Hain gustura azkenak izan zirela tabernatik ateratzen. Joxe Mari bere herriko baserrian geratu zen lotan, oso berandu baitzen mendira igotzeko. Hurrengo goizean igoko zen.

Hurrengo goizean, esnatzean, gosaldu eta berehala igo zen mendira. Txabolara iritsi zenean, gauza batzuk utzi eta bere ardiengana joan zen. Txabolaren parean zituen ardiak, gertuago edukitzeko. Baina kontatzera joan zenean bat falta zen. Ihes egingo al zuen? Lapurtu egingo al zuten? Urduri jarri zen eta ez zekien zer egin, baina positibo pentsatzen saiatu zen, eta ardia aurkituko zuela pentsatzen jarri zen.

Joxe Mari, lehenik, mendian hasi zen bilatzen bere ardia. Hala ere arraroa egiten zitzaion bere ardiak ihes egitea, baina ez zuen nahi inor salatu frogarik gabe. Ingurutik begiratzen aritu zen eta ez zuen ezer aurkitu. Bere beste lur batzuetara joan zen ikustera ea hor zegoen, baina ezer ez. Erreka alboan ere begiratu zuen, baina ardiaren arrastorik ez zuen aurkitu. Beste gau bat itxaron zuen bere herrian galdetu baino lehen. Gertutakoa bakarrik jakin nahi zuen. Gau hartan ardiei begira geratzea zen bere ideia baina lo hartu zuen eta ez zen ezertaz ere enteratu. Hurren-

go goizean lo hartu zuela konturatu zenean pixka bat urduri jarri zen ea zerbait pasa zen bere ardiekin eta kontatzera joan zenean beste ardi bat falta zen. Berak ez zuen ulertzen zer gertatu zen, baina oso seguru zegoen lapurketa bat izan zela eta ez zutela ihes egin. Berak ez zuen ulertzen zergatik lapurtu zizkioten ardiak, denekin ongi eramaten baitzen, artzai, baserritar eta herritar guztiekin. Horregatik ez zuen ulertzen nork ahalko zion horrelako zerbait egin. Herrira jaitsi zen bere lagunei galdetzera ea zerbait berdina pasa zitzaien.

- Kaixo!
- Ieu!
- Zer gertatzen da Joxe Mari? - Galdetu zuen bere lagunak Joxe Marien aurpegia ikustean.
- Ba, nire bi ardi desagertu egin direla
- Nola ba??
- Bai, afaria egin genuen gauean desagertu zen lehengoa, eta pentsatzen nuen ihes egingo zuela, baina gaur gauean berdina pasa da, eta hau oso arraroa da bi desagertzea gau desberdinetan.
- Baina nork nahiko zizun horrelako zerbait egin? - Galdetu zuen beste gizon batek.
- Ez dakit, nik dakidala guztiekin ongi eraman ohi naiz.
- Bai, zu izango zara bakarria denekin ongi eramaten dena.
- Bueno zerbait baldin badakizue deitu nire mugikorrera.
- Bale ba. Agur!

Bar Ainhoa

- Razioak
- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Gosariak Tostadak mermeladarekin eta bertan eskuz egindako madalenak, errokilak, croisant-ak eta napolitanak.

Astelehenetik ostiralera goizeko 7:00etatik aurrera

Aralar 15, 31870 Lekunberri (Nafarroa)

948 504 077 · 639 778 851 · aitziberalif@hotmail.com

**aitz
berri**
edertasun
zentroa

Lako beikoa
Betelu 31890
696 732 290

aitzberri@hotmail.com

Ile-apaindegia

Estetika

Presoterapia

Podologoia

Laser-depilazioa eta

depilazio elektrikoa

Dietista-nutrizionista

Mikropigmentazioa ezpainenetan

Mikroblading bekainetan

Zola azpietatik

Handitasuna
Izatearen etsairik handiena
Handi izan nahia
Txikien egiten gaituena

Handiena lehena omen
Hoberena izan
Gehien duena
Merezi duena
Gehien jasoz
Zigortzen duena

Zein hauskor
Bihurtzen den arima
Txikia garuna
Ustela bihotza

Gezurra lehen hitza
Hutsa agurra
Ikasitako irribarra
Asmatuak lortuak
Ixilduak egiak
Margoz beterik istorioak

Ustea elikatu
Nahiak lapurtu
Bortizki jolastu
Zapaldu
Zapaldu
Zapaldu



- Aio!

Behorrekin zegoela bere mugikorrera deitzen hasi ziren. Bere lagun bat zen, beste artzai bati bere 2 ardi desagertu zitzaizkion. Orduan gau horretarako ongi prestatu zuen dena lo ez hartzeko, ea norbait agertzen zen ikusteko.

Gauean bere ardiak zaintzen zegoela, soinu bat entzun zuen eta zerbait hartu zuen kanpora joateko. Kanpoan gizon bat zegoen eta Joxe Mari berarengana joan zen isilik, gizon hura nor zen ikusteko. Bizkarrean ikutu zion eta gizonak sekulako sustoa hartu zuen. Korrika egiten hasi zen baina Joxe Marik harrapatu egin zion. Joxe Marik ea zer egiten ari zen galdetu zion. Gizona isilik geratu zen eta Joxe Marik bere txabola barrura eramane zuen gizona lasaitzeko eta gauzak ongi azaltzeko. Gizonak artzai

bezela lan egin nahi zuen baina ez zekien nondik lortu ardiak, behorrak, ahuntzak... eta egun batean menditik buelta bat ematen zegoela hemen inguruko ardiak ikusi zituen eta idea hori eduki zuen, artalde bakoitzetik ardi bat hartzea gauero. Pentsatzen zuen ez zutela nabaritu, baina bai. Joxe Marik ulertu egin zion, eta lagundu egingo ziola esan zion, baina lapurtutako ardi guztiak bueltatu beharko zituen. Gizonak baietz esan zion. Hurrengo egunean ardiak bueltatu zizkion eta Joxe Marik artzai bakoitzari bere ardiak eman zizkion, gizonaren azalpenarekin.

Hurrengo astean gizonari laguntzen hasi zen, ardiak, behorrak, ahuntzak... non erosi lagunduz. Handik aurrera astero ikusten ziren eta lagunak egin ziren.

Araxesek bi txapel irabazi ditu Nafarroako Txapelketan

Apirilaren 10ean jokatu zen Nafarroako Kirol Jokoetako Herri Kirol Txapelketako finala, Betelun, eta Araxes herri kirol taldeak amaiera ezin hobea eman zion txapelketako ibilbide bikainari: Kimuak (11-12 urte) eta Haurrak (13-14 urte) kategorietako taldeek txapela irabazi zuten, frontoia bete-beteta zegoela, giro ezin hobean. Kimuen kasuan, faborito nagusiak ziren, baina esfortzuarri esker lortu zuten garaipena, eta, hala, iazko arantza kendu ahal izan zuten. Bestalde, Haurrak taldekoen garaipena ez zegoen batere argi: aurreko lau jardunaldietan bigarren eta hirugarren postuan geratu ziren, eta bigarren sailkapenean, baina azken-aurrekoan hiru segundo baino ez zizkion atera laugarrenari. Beren onena emateko gogoz atera ziren plaza-



ra, eta baita lortu ere, nagusitasunez irabazi baitzuten. Unai Ijurko Saralegi taldeko entrenatzaileak nabarmendu duenez, finaleko jardunaldia oso

arrakastatsua izan zen, "festa bat". Horregatik, gurasoei nahiz gazteei egindako lana eskertu nahi izan die. Segi horrela, Araxes!

Aldabe, Berria Txapelketako txapelduna, 'Erremontari' saioan lehiatuko da heldu diren asteetan

Oso fin aritu ziren Aldabe eta Apezetxea 2022ko Berria Txapelketako finalean, hasi eta buka, eta me-rezirako txapela jantzi zuten; 35 eta 29 hartu zituzten mendean Loitegi eta Zaldúa, Galarretan, Hernanin. Hasiera berdindua izan zen, baina gero partida menderatzea lortu zuten gorriek, berdinketatik aldenduz, eta 14-16 hartu zieten aurre. Berdinketara itzuli ziren gero, 18na jarrita.

Azken momentuan, 22-23 jarri ziren urdinak, baina Aldabe eta Apezetxea gailendu ziren azken txanpan, 13-6ko partzialarekin.

Garaipen horrekin aski ez, baina, eta Sagardoaren Txapelketan ere lehiatuko da Aldabe aurten, Larrañaga atzelari duela. ETB1en Erremontari saioaren barruan emango dituzte partidak, astelehenetan; ekainaren 20an izango da finala. Aldabe eta

Larrañagaz gain, beste bost bikote ahaleginduko dira txapela lortzen: Goikoetxea V-Barrenetxea IV (Oialume Zar), Urriza-Zubiri (Larre-Gain), Ezkurra II-Zaldúa I (Gurutzeta), Seguro-la-Azpiroz (Petrítegi) y Ansa II-Juanenea (Setien). Aldabek adierazi du gero eta konfiantza handiagoarekin ari dela erremontean, eta espero duela txapelketa polita egitea.



Gutxika, beti eskas

Bazen Grezia zaharrearan Akiles izeneko gudari eta korrikalari fama-tua. Indartsua, ausarta eta oso azkar mugitzen zekiena. Inork ez zion itzalik egiten, edozein menderatzeko gai sentitzen zen eta, gainera, erronkak maite zituen.

Behin batean, lagun batek, adarra jotzearen, ea dortoka baten aurka lasterketa egingo ote zuen galdegin zion. Akilesek, barrezka, baietz esan zion.

Errokaren egunean, publiko handi baten aurrean, lasterketaren irteeran elkartu ziren Akiles eta animalia. Muga urrun ikusten zen eta epaileak hasiera jo zuenean, dortoka mantso, mantso, abiatu zen. Akilesek abantaila eman nahi izan zion, ez umiliatzeko, eta siestatxoia egitea deliberatu zuen. Esnatzean, dortoka puntu urrun batean zegoela ikusita, puntu horretaraino joateko azkar abiatu zen. Bertara iritsita, dortoka dagoeneko beste toki batean zegoen. Toki berri honetara joatea erabaki zuen, baina bertara iristean han ere ez zegoen dortoka, azken hau ez baitzen geldirik egoten.

Zenbat aldiz jokatu dut nik horrela nire bizitzan? Zenbat arlotan? Harrokeriaz, nire burua engainatzen?


Ez al dut nik horrela egin nire osasunarekin, nire ekonomiarekin, harremanekin, heriotzaren ideiarekin eta beste askorekin? Akilesek bezala jokatuta, inoiz ez naiz asetzen, beti motz geratzen naiz. Ikasi behar dut, ordea, nire bizitza bere osotasunean hartzen eta hari begira nire bidea egin.



Gogotsu ekin diote sokatirari

Sokatira bueltan da, jada martxan baitago 2022ko helduen Nafarroako sokatira denboraldia, 4x4 modalitatean. Araxes horretan ere lehiatzeko prest dago: talde mistoen eta emakumezkoen txapelketetan arituko dira. Lekunberrin jokatu zen lehen jardunaldia, apirilaren 23an, Lekunberriko Udalak eta Lekunberri

Kirol Elkarteak antolatuta. Berrehun lagun inguru elkartu ziren frontoian, eta giro bikaina sortu zen. Saio hori pisu handiko kirolariena zen, eta Araxeseko bi talde aritu ziren tiran; azken postuan geratu ziren arren, saio txukuna egin zuten, are kontuan izanda taldekide berriak zituztela. Entrenatzen segitzeko ilusio handia dute, eta ziur hori erakutsiko dutela heldu diren saioetan. Betelun izango dira tiratzen maiatzaren 14an.



Lekunberritik abiatuko da Nafarroako Itzuliko hirugarren etapa

Maiatzaren 26an emango diot hasiera 2022ko Nafarroako Itzulari, eta hirugarren etapa Lekunberritik abiatuko da, maiatzaren 28an, hain zuzen ere. Azken bi urteotan ezin izan dute

lasterketa antolatu, hainbat arrazoi medio, eta lau etapatan banatu dute; maiatzaren 29an bukatuko da, Iruñean. Zangozan aurkeztu zuten itzulia, eta han izan ziren Ioseba Ordoki Lekunberriko kirol zinegotzia eta Gorka Azpiroz alkatea. Izan ere, herri horretatik abiatuko da aurreneko etapa, Zangozatik, eta 140,4 kilometro izango ditu. Bigarrena, berriz, Kasematik Belaguara, 163,3 kilometroko ibilbidearekin. Lekunberrin abiatuko dena 134,5ekoa izango da, Berrio-beitiraino. Eta azkena 124,8 kilometrokoa izango da.



Hitzekin ekitera!

26



Printzaren aldeko aldarrikapenak egin zituzten. Arg: AEK.

Apirilaren 5ean Larraun eta Lekunberri zeharkatu zituen 22. Korrikak, eta herritar asko eta asko abiatu ziren lekukoaren atzetik lasterka, euskararen aldeko egitasmorik handienez. Apirilaren 10ean ailegatu zen Korrika Donostiara, eta orduan jakin zen nork idatzi zuen lekukoak zeraman mezua: Karmele Jaio idazleak, hain zuzen. Besteak beste, euskararen nortasuna nabarmendu zuen.

Aurten ere Korrika ez da pasatu Araiztik eta Betelutik, baina asko joan ziren inguruko herrietara lasterka egitera. 2017. urtean pasatu zen azkenekoz, eta bertakoek espero dute hurrengo aldietan ibilbidearen parte izatea.




Lekunberriko udaletxe paretik pasatzen. Arg: Juan Antonio Garaiakoetxea.



Araitz-Beteluko herritar batzuk, Altxotik Amaratzerako ibilbidea egin aurretik. Arg: Maria Sotil.



Araxes eskolakoek Aldatzen hartu zuten lekukoa. Arg: AEK.



Korrika Larraunen barrena. Arg: AEK.



Euskal Herriko eta Nafarroako banderak airean. Arg: AEK.



Korrikalariak salto egiten! Arg: AEK.

M. Angeles Urrizalki
iragarkiak, berriak, eskelak...
Diario Vasco eta Diario de Navarrako Korrespontsala
948513056
699179437

Atabal
 okindegia
 Era askotako ogiak eta gozoak
 Etxez etxe banatuko dugu
 Ogia enkargatzeko...
948513151

MAITE HARATEGIA
BERTAKO HARAGIA
 Txistorra, txorizoa, saltxitxak, sukaldatutako platerak.
 Etxera eramateko zerbitzua ere eskeintzen dizugu.
 Antigua kalea 7
 31890 BETELU
 948 51 30 88 maiteharategia@hotmail.com

Herrigintzatik energia komunitateak sortuz

Ko-energia taldeko Esther Muñoz eta Idoia Zulet Gabari gune irekian izan ziren apirilaren 23an, energia komunitateei buruzko tailer bat gidatzen. Azaldu zuten herritarren parte hartze demokratikoa dagoela energia komunitate baten oinarrian, eta energiaren sektoreko enpresek eskaintzen dituzten ereduak ez dituztela baldintza horiek betetzen. Garesen, esaterako, herritar batzuk hasiak dira trantsizio hori egiten.

Herritarrentzako energia, herritarrek nahi duten eredu energetikoaren bidez. Horixe du helburu energia komunitate batek, eta herritarrek beraiek sortutako entitate bat da funtsean. Europan, bereziki, gero eta horrelako eredu gehiago daude; Alemanian, esaterako, 2.000 energia komunitate inguru daude. Gurean, halaber, orain dela nahiko gutxi hasi dira horrelako egitasmoak sustatzen —Espainian 30 energia komunitate inguru baino ez daude—, baina badira horren inguruko interesa eta nahia duten herritarrak. Hori hala, apirilaren 23an energia komunitateei buruzko tailer bat antolatu zuten Gabari gune irekian, eta Ko-energia taldeko Esther

Muñoz Alonsok eta Idoia Zulet Galek gidatu zuten. Esther Muñoz Kisar eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak bultzatzen dituen taldeko aholkularia da, eta Idoia Zulet, berriz, Arankoa taldeko abokatua.

Europako Batasunak bi motatako energia komunitateak zehaztu ditu trantsizio energetikorako neurri sorten barruan: herritarren energia erkidegoak eta energia berriztagarrien erkidegoak. Beraz, esan daiteke klima aldaketari aurre egiteko Europako estratergiaren funtsezko tresna direla. Bi mota izan arren, biek ezaugarri nagusi hauek dituzte: parte hartzeak irekia eta borondatezkoa izan behar du, autonomia sustatu behar

du, proiektuen inguruan dauden bazkideen kontrola eraginkorra izan behar da, eta irabaziek ingurumene-koak, sozialak eta ekonomikoak izan behar dute; azken horretan, gainera, Muñozek eta Zuletek nabarmendu zuten irabazi ekonomikoak ezin direla inoiz izan helburu nagusia, hau da, ez da onartzen gero banatuko diren etekinak lortzea, enpresetan gertatzen den bezala. Energia komunitate baten bidez lortutako onurak inbertitu egingo dira, gizartean edota komunitatean bertan.

Bestalde, azaldu zuten komunean zuten beste ezaugarri bat zela entitate horrek izaera juridikoa izan behar duela: “Ez du balio arautu gabeko lan kolektibo informal bat sortzea, adibidez, herri plataforma bat. Europako Batasunak ez du zehaztu, baina esan du estatu bakoitzak ziurtatu beharko duela existitzen diren forma juridikoetako bat duela entitate horrek. Legeetatik kanpo dagoen guztia ez da onartuko energia komunitate gisa. Beraz, tarte zabala dago”, adierazi zuten Zulet abokatuak.

Batasunaren indarra

Energia komunitateetan auzo, herrixka edo udalerrri bateko auzotarrek parte hartzen dute, bai eta partikularrek, negozio txikiek, toki erakundeek (udalak, esaterako), garapen agentziek, mankomunitateek eta abarrek ere. Nafarroan, administrazio publikoen kasuan, kontzejuek, mankomunitateek nahiz udalek par-

Gabari gunean egin zuten tailerra. Arg: Labrit.





te har dezakete. Baina ezinbestekoa da eragile guztiek pisu bera izatea, garrantzi bera, partikularrak zein bestelako enpresa edo erakunde izan; izan ere, modu demokratikoan bultzatzen dira proiektuak energia komunitate batean, eta erabakiak ere denen artean hartu behar dira: "Erabaki kolektiboak hartzen dira; modu horizontalean egiten da parte hartzea. Herritik energia sortzea da helburua, baina baita lurralde ikuspegia ere, zein dinamika dauden, eta horiek kontuan hartzea komunitatea sortzeko orduan", Muñozek adierazi zenez. "Proiektua herrian sortzeaz gain, mantendu eta garatu nahi badugu, herritarrek bereganatzea garrantzitsua da, eta horretarako ezinbestekoa da herritarren parte hartzea, baina ez modu sinbolikoan, baizik eta jendartea trebatuz proiektuaren gaineko erabakiak hartu ahal izateko, eta ikuspegi komunitario eta kolektibo hori sustatu ahal izateko. Herrigintza lantzea, komunitarioki daukagunari balioa eman ahal izateko eta sustatu ahal izateko".

Autokontsumo kolektiboa

Autokontsumo kolektiboaren eta energia komunitateen arteko desberdintasunak azaldu zituzten: "Autokontsumoa kolektiboki egin daiteke entitate juridikoa izan ala ez. Esaterako, bizilagunarekin parteka dezakegu energia, gastuak txikitzeko. Baina hori proiektu bat izango da, eta ez komunitate bat". Azken boladan, energiaren sektoreko enpresa batzuk herritarrei eskatzen ari dira energia komunitateetan sartzeko, energia modu merkeagoan lortzeko; baina, Muñozek eta Zuletek esan zutenaren arabera, enpresek eskaintzen dutena ez da funtsean energia komunitate bat: "Energiaren sektoreko enpresa batetik eredu bat inposatzen dizute, enpresek instalazio bat jartzen dizute, ordaindu egiten duzue, eta horrekin esaten dizute aurreztu egingo duzula. Baina eredu hori ez baita komunitate bat, erabakiak ez baituzu hartzen, ezta komunitatean ere: dena inposatu egiten dizute. Baliteke autokontsumo kolektiborako eredu bat izatea oinarrian, baina ez energia komunitate bat".

"Herritik energia sortzea da helburua, baina baita lurralde ikuspegia ere komunitatea sortzeko"

Ko-energia taldeak herritarrei trantsizio horretan laguntzen dihardu. Landaren eta komunitatearen garapenean lan egiten dute, tokiko prozesuetan integratzen diren proiektuak diseinatuz eta horietan lurraldean dauden baliabideak, dinamikak eta gobernantza kontuan hartuz eta integratuz. Hain zuzen, taldearen asmoa da herritarrei eta komunitateei laguntzea beren ahalduzko energetikoko prozesuetan, eta, horretarako, diziplina arauemaitik, juridiko, energetiko eta sozialetatik abiatzen dira. Informazio gehiago: www.ko-energia.com.



**aseguru
gintza
XXI**

**ASEGURU
AHOLKULARIAK**

Zure ondarea eta segurtasuna babesteko modu bakarra behar bezela aseguratua egotea da

- ▶ aseguruak@aseguruak.eus
- ▶ 943 65 22 20
- ▶ Korreo Kalea 7-baxua 20400 Tolosa



urrutia
enea

etxeko hestekiak

LEKUNBERRI

INFORMATIKA ARALAR
LEKUNBERRI - ARAITZ
LARRAUN
JALMENTA ETA KONPONTZER

634 551 743
infoaralar@gmail.com

SAN MIGUEL
Taberna-Jatetxea

Arribe
948 51 31 34

ZER GERTATU DA EDATEKO URAREKIN LEKUNBERRIN?

Lekunberriko herritarrek ezin izan dute edateko ura kontsumitu bost egunez, baina, udalak adierazi duenez, egoera normaltasunera bueltatu da. Udalak gertatukoaren nondik norakoak azaldu ditu.

Zer gertatu da?

Apirilaren 20an, ura ateratzen duen ponpa bat hautsi zen. Ponpa hori ehun metroko sakoneran dago, lur azpian. Haustura horren ondorioz, ezin da bermatu Edateko Uraren Tratamendurako Estazioak (EUTE) behar bezala funtzionatzen duela. Ertzillako Partzuergoak kudeatzen du edaten den ura (Etxarrin, Allin, Iribasen, Mugiron, Arruitzen eta Lekunberrin). Ur hori bi lekutatik hartzen da: Aitzarreta iturburutik eta apurtu zen ponpa hori erabiliz.

Hausturaren ondorioz, ezin da instalazioak (EUTE) behar bezala funtzionatzeko behar duen ur bolumenik izango duela bermatu, ezta herri guztiak tratatutako urez hornitzeko adina emari izango duenik ere.

Zer egin dute?

Horren aurrena, Lekunberri ur kloratuz hornitu zuten (2013a baino lehen Lekunberrin edaten zenaren antzekoa). Ur hori arazorik gabe edan daitekeela baieztatzeko, beharrezko analisiak egin zituzten. Ura kontsumitu baino lehenago 3-5 minutuz irakitea prebentzio neurri bat da.

Ponpa osagarri bat

Apirilaren 22an, ponpa osagarri bat instalatzeko obrak hasi zituzten. Asmoa da kaltetutako ponpa aldi baterako ordezte eta lantegiaren segurtasuna bermatzea, baita partzuergo osoa edateko urez hornitzea ere.

Ponpa berri bat: 3-6 hilabete

Behin betiko irtenbidea izango litzateke hondatutako ponpa aldatzea, eta iturburuaren eta EUTEaren artean ura ekartzeko sistema hobetzea. Horrek hiru eta sei hilabete artean iraun dezake, eta 560.000 euro inguruko kostua du.

Udalak hiru hilekoaren fakturaren kostua murriztuko dela jakinarazi du, eta deskontua laster zehaztuko dela ahoko uraren kontsumo estandarerako irizpide teknikoetan oinarrituta.



TAXILON



661 202 249
(9 plaza)

E-posta: lotamendi5@gmail.com Atallu - Araitz

Lontxo
Otamendi
Artola



SOTIL GARAJEA

BETELU

948 513 007

sotilgarajea@gmail.com

▶ AGENDA

MAIATZA

5 - Ipuin kontaketa musikatua: 'Ameli ipuinen jostune'. 18:00etan, Allin.

6 - Gure esku egitasmoaren 'Pirinioetako Bidea', Larraungo aurkezpena, Gabari gune irekian, 20:00etan.

6 - Lehen sektorean aritzeko ikastaroa, Cederna Galurren eskutik. Plazaolako Partzuergo Turistikoan.

6 - Aralar musika eskolako talde instrumentalen pop-rock kontzertua, 17:30ean, Gabari gune irekian.

7 - 'Bost teilatu' filma, Eñaut Castagnetekin, Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan, 19:00etan, Gabari gune irekian.

8 - Mendialdeako Azoka Lekunberrin, 10:00etatik aurrera.

14 - Bigarren eskuko liburuen azoka, Mitxausenearen kanpoaldean. 11:30etik 13:30era.

14 - Herri Kirol Eguna Betelun: 11:00etan, gazteentzako eta umeentzako herri kirolak eta jolasak. Eguerdian, bazkari autogestionatua Beteluko Zigari elkartearen. 17:00etan, Nafarroako 4x4-ko sokatira txapelketa (26 talde, 7 klub). Ondoren, trikipoteoa. 00:00etan, gaupasa Atalluko elkartearen..

15 - Mendialdeko Azoka Gorritin. Latxa arrazako ahari genomikoen lehenengo enkante nazionala egingo dute. 10:00-15:00, enkantean jarriko dituzten aharien erakusketa; 10:00-12:00, enkanterako txartelak ateratzea; 12:30ean, enkantea..

15 - Laugarren Lore eta Landare Azoka, Lekunberrin. 10:00etatik 15:00etara.

21 - Lekunberri eta Larraungo erraldioen konpartsa, Tafallan, Nafarroa Oinez jaialdiaren harira. Autobusez joango dira Lekunberritik, 9:30ean. Izena emateko: 626-74 69 06 edo 606-81 12 49.

22 - Aizkolariak, trontzalariak eta harri jasotzaileak Lekunberrin, 12:00etan.

22 - Plaza dantza tailerra, 11:00etan, Etxarrin.

27 - Amaiurraldiaren aurkezpena: "Zer gertatu zen Amaiurren duela 500 urte? Eta orain zer?". 18:30ean, Gorritin.

28 - 'Trapu Zikinak' ikuskizuna, Lore More antzerki taldearen eskutik. Geuretik Sortuak egitasmoaren barruan, 18:00etan, Aldazko garbilekuan.

28 - Mendi martxa Gorritiko gaztelura, 11:30ean, Gorritiko plazatik. 9:00etan Lekunberritik.

28 - Nafarroako Itzuliko hirugarren etapa Lekunberritik abiatuko da.

larraun.info



Printza
Facebooken:



Printza
Twitterren:




Lagunasesoría S.L.

Fiskala
Laborala
Kontabilitatea
Seguruak...

k/ Artzanegi, 2 Behea 31870 Lekunberri (Nafarroa) tel/fax 948 504 232
lagunasesoria@terra.es



ekin
rotulación

948 85 32 79



CARPINTERIA HNOS. AZPIROZ, S.L.

ZURGINTZA OROKORRA

INDUSTRIALDEA 15- LEKUNBERRI
Telefona eta Faxe: 948507343
carpinteria@carpinteriaazpiroz.com



SAN MIGUEL
gasolindegia

Xabier Garmendia 629 350 099
Arribe-Atallu



OGI-BERRI ALTZA

Aralar kalea, 41
Lekunberri

OGI BERRI
OKIN ARTISAUAK 948604884



UDABERRIAN Larrainera

Ap. 28 osteguna

Literatur geraldia:
"Herriak ez du barkatuko"
Irati Goikoetxearekin
18:30 · Mitxausenea

Ap. 29 ostirala

Mendialdeako eskuz binakako
III. txapelketaren finalak
18:00 · Lekunberriko pilotalekua

Ap. 29 ostirala

Bertso afaria
"Mingaño saltsan 2022"
21:00 · Uitziko Elkartea

Mai. 5 osteguna

Ipuin kontaketa musikatua:
"Ameli ipuinen jostune"
18:00 · Allí

Mai. 6 ostirala

Aralar musika eskolako talde
instrumentalen Pop-Rock kontzertua
17:30 · Gabari Gune Irekia

Mai. 6 ostirala

Gure esku: "Pirinioetako bidea"
ekimenaren aurkezpena
20:00 · Gabari Gune Irekia

Mai. 7 larunbata

Geuretik sortuak: "Bost teilatu"
filma Eñaut Castagnetekin
19:00 · Gabari Gune Irekia

Mai. 15 igandea

Mendialdeko azoka ibiltaria
eta latxa arrazako ahari
genomikoen enkantea
10:30-14:00 · Gorriti

Mai. 22 igandea

Plaza dantza tailerra
11:00 · Etxarri

Mai. 27 ostirala

Amaiurraldiaren aurkezpena:
zer gertatu zen Amaiurren
duela 500 urte? Eta orain zer?
18:30 · Gorriti

Mai. 28 larunbata

Mendi martxa Gorritiko gaztelura
11:30 · Gorritiko plaza
(9:00etan Lekunberritik)

Mai. 28 larunbata

Geuretik sortuak:
"Trapu zikinak" antzerkia
18:00 · Aldazko garbilekua

Ek. 4 larunbata

Ibarberri Ikas
Komunitatearen festa
Egun osoa · Ibarberri Eskola

Ek. 10 ostirala

Asisko Urmenetaren
"AMAIUR! Libera State"-ren
aurkezpen-solasaldi ilustratua
19:00 · Astitz

Ek. 11 larunbata

Kaskamotz Eguna
Egun osoa · Uitzí